

Ordizian, **bi mila eta bederatziko martxoaren 26an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Maraño Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
--------------------	----	--------

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

Marañon andrea 2.puntu bertaratu da saiora.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2009ko urtarrilaren 20an egindako Osoko Bilkurak egindako bileraren akta onartu.
..... **2orr**
- 2.- 2009ko urtarrilaren 30an egindako Osoko Bilkurak egindako bileraren akta onartu.
..... **2orr**
- 3.- 2009ko otsailaren 5ean egindako Osoko Bilkurak egindako bileraren akta onartu.
..... **4orr**
- 4.- Jakintza ikastolako auditorioko obretan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko hobaria.
..... **5orr**
- 5.- Mahaitxoeren ordenantza.
..... **6orr**
- 6.- 2008ko gastuak 2009ko aurrekontuan sartzeko eta kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu.
..... **9orr**
- 7.- Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia aldatu.
..... **11orr**

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

San Jose zaharren egoitzatik EULENeko hainbat langile bertaratu dira.

GALDE-ERREGUAK

- .-Garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak emateko oinarrien zuzkidurei buruzko galdera.
 - .- Oholetan jarritako propaganda-kartelak hauteskunde-kanpainan kentzea.
 - .- EULENeko langileen aldarrikapenak.
- **13.orr**

ORDUTEGIA:

HASIERA: 8,05 etan

AMAIERA: 9,00etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.-2009 ko urtarrilaren 20ko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2008ko urtarrilaren 20ko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9(EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 2,EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Iturrioz andrea (EAJ), ez zelako bilerara etorri)

Beraz Alkate jaunak akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- 2009ko urtarrilaren 30eko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2009ko urtarrilaren 30eko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida



Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 4(EAJ 2, EA 1, PSE-EE/PSOE 1,)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 7 (Iturrioz, Galparsoro eta Marañon andreak, Txurruka, Asenjo, Lopez eta Leunda jaunak, ez zirelako bilerara etorri)

Beraz Alkate jaunak akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- 2009ko otsailaren 5eko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2009ko otsailaren 5eko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Asenjo jauna

2. puntuan (2009 ekitaldirako udal-aurrekontua) egindako bozka bai euskarazko aktan eta bai gaztelaniazkoan gaizki jasotzen dela adierazten du.

Kontrako 3 boto jaso ziren (bi EB/Aralar koalizioaren aldetik eta 1 PP alderdiaren aldetik) eta ez 2 aktan jartzen duen moduan.

Dagokion zuzenketa egiten da.



Halaber, euskarazko aktan 7. puntua oker adierazita dagoela adierazten du. Hor honakoa ipini behar da: "Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren behin betiko onarpena".

Hori ere zuzendu egiten da.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 4, PSE-EE(PSOE) 3, EA 2, EB/Aralar 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Galparsoro andrea ez zelako bilerara etorri)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du adierazitako aldaketak barneratuta.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren puntuaren berri eman du:

4.- Jakintza ikastolako auditorioko obretan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko hobaria.

Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantza horren 8-1º artikuluan ezartzen duenaren arabera, interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapeneakoak baleude.

Jakintza ikastolak eskatu du San Inazioko eraikinean auditorio berria eraikitzeko obren hobaria.

Uztailaren 15/1989 Eraikuntza, Instalazio eta Obretako Foru Arauko 5.1.a) artikularen arabera, (martxoaren 19ko Herri Zergen Sistema berritzeko 4/2003 Foru Arauak aldatutakoa), hobariak hartzeko aukera duten interes edo erabilera publikoko aldarrikapena ematea dagokio Osoko Bilkurari.

2009ko martxoaren 8ko Plenorako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman dio eskatutako hobari horri, honako ezaugarri hauek dituelako:



1.- San Inazio eraikina eta ikastola dagoen partzela udalaren jabetzakoa da eta, beraz, egingo diren obren hobekuntza udalera itzuliko dira biharko egunean.

2.- Gainera, egin beharreko obra, auditorioa egokitzea, Ikastolarentzako ekipamenduz gain, Udalak berak izan ditzakeen beharrei erantzuteko espazioa izan liteke.

Hori ikusita,

AKORDIO PROIEKTUA.

Jakintza ikastolan auditorioa egiteko egingo diren obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei ematea Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hoberia.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: Ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren puntuarenberri eman du:

5.- Mahaitxoan ordenantza.

Proposamena

Toki eraentzearen Testu Bateratuaren 74.artikuluaren arabera, kale, plaza, pasealeku, parke eta abarrak jabari publikoa dira, konkretuki, erabilera publikoko ondasunak.



33/2003, azaroaren 3ko Herri Administrazioen Ondasunei buruzko Legearen 84. artikulua, oinarriko izaera duenak, dio "eskuduna duen agintariaren titulu baimentzailerik gabe inork ezin du jabari publikokoak diren ondasunak okupatu edo erabili, denoi dagokigun erabilera eskubidea gaindituz.

Terraza eta mahaitxoak jarriz, horien titularrek aipatutako lekuen erabilera intentsuagoa egiten dute gainontzeko hiritarrek baino, erabilera librea eragotziz.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 75. artikulua arabera, instalakuntzen titularrek egiten duten jabari publikoaren erabilera komun eta espezial baten aurrean gaude eta horrek Udalaren aurretiazko lizentzia behar du.

Udalak lizentzia horiek erregulatzeko ahalmena du, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 4.1. a) artikulua dionez.

Ordenantza hau jabetza pribatua izanik, erabilera publikoa duten lekuei ere aplikatzen zaie. Horretarako eskumena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 b) artikulua " ibilgailu eta pertsonen trafikoa herri-bideetan arautzeko" ematen du

Legearen 49. artikulua dioenari jarraiki, udal Ordenantzen onespena honako prozedura honi atxikiko zaio:

- a) Osoko Bilkuraren hasierako onspena.
- b) Ordenantza jendaurrean jarri eta interesatuta daudenei erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko gutxienez 30 eguneko tarte eman.
- c) Epe horren barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzi eta Osoko Bilkuran Ordenantza behin-betiko onetsi.

Erreklamazio eta iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin-behinekoa izan den onspena behin-betiko bihurtuko da.

Hori horrela, Zerbitzu eta Agenda 21eko Delegazioaren 2009ko martxoaren 5eko diktamenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzailearen behin-behingo onspena.

2.- Ordenantza hori jendaurrera jarri beharko da berriro ere 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tarte eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.



Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jauna

Ordenantza proposamena taberna eta establezimendu guztietara helarazi dela azaltzen du. Kexa eta iradokizunik jaso da.

Orain Osoko Bilkuran ordenantza proposamenari ematen zaion onarpena hasierako onarpena dela adierazten du, jendaurrera zabalduko dena, eta aipatutako epea amaitu ostean, aurkeztutako kexa eta iradokizunak aztertuko dira behin betiko onarpena eman aurretik.

Asenjo jauna

Terraza eta mahaitxoei dagokienez zegoen hutsunea asetzeko ahalegina dela adierazten du. Alkateak esan duen moduan, aurkeztutako kexa eta iradokizunak azertu egingo dira ordenantza behin betikoz onartu aurretik.

Iztueta andrea

Jendartetik, aurkeztu diren iradokizunak ez dituela ezagutzen eta aintzat hartuko direla espero duela adierazten du.

Asenjo jauna

Halaxe izango dela erantzuten dio.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 11 (EAJ 4,EA 2,PSE-EE(PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren puntuaren berri eman du:

6.- 2008ko gastuak 2009ko aurrekontuan sartzeko eta kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu.

Proposamena

2008an aurrekontua kontsignaziorik gabeko gastuak egin ziren partida batzutan.

2008ko urtea ixteari ekin aurretik, ahal zen neurrian, gainditze horiek konpontzeko ahalegina egin zen, eta Kontabilitatetik 47.501,55.-€ euroko fakturak kendu ziren.

2009ko otsailaren 25ean egindako Ogasun Delegazioan erabaki zen Udalbatzarrara eramatea expediente hau.

Gipuzkoako Toki-Erakundeen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikulua arabera, 2009ko martxoaren 18an Plenorako Gaiak Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari:

AKORDIO PROIEKTUA

2008ko gastuak 2009ko aurrekontuan sartzea onartu, guztira 47.501,55.-€.

Gastu horiek finantzatzeko 2009ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu, guztira 47.501,55.-€ eurokoa, gastu horiek partzialki finantzatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jauna

Gastu nagusien deskribapena egiten du.



Iztueta andrea

Jendartetik, kreditu gehigarriak erraztasun gehiegiz erabiltzen direla uste du.

Alkate jauna

Gaia kontrolatzeko ahaleginak egiten ari direla adierazten du, baina, kontrol ahalegin hori egin arren beti ezusteko gastuak agertzen direla.

Txurruka jauna

Kreditu gehigarrien espedienteko hainbat gastu komunikazio falta batek eraginda egin direla adierazten du; hain zuzen, Artelatzeko gastuak, Coral Oroithek Austriara egindako bidaiaren gastuak, etab.

Maiza andrea

Artelatzeko gastuei buruzko aipamena egiten du. Bera legealdian sartu zenean gastua zegoela aipatu zuen. Hurrengo urtean aurrekontuan barneratu behar zela adierazi zuen berriz ere, eta ez zen halakorik egin.

Alkate jauna

Goiekik kudeatzen zuen zerbitzua zenez, agian horregatik udal-aurrekontuan ez zela barneratu adierazten du.

Dubreuil jauna

Aurrekontuei dagokion kopurua oso txikia dela adierazten du eta urtero txikiagoa izatea dela joera. Aurrekontua horixe dela dio, AURRE-kontua, eta, beraz, sortzen diren aldaketan mende dagoela.

Kontu-hartzaile jauna

Zera aipatzen du: arazoa ez dela soilik aldaketa hori, baizik eta aldaketak pilatzen ari direla.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 2 (EB/Berdeak/Aralar)



Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

7.- Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia aldatu.

Proposamena

2009ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Alde Zaharreen trafikoa arautzen duen udal ordenantza, otsailaren 5eko Osoko Bilkuran erabakitako aldaketak indarrean sartzeko behar den tramitea betez.

Toki Jaurbidearen Oinarrien 56 eta 64 artikuluen araberako eskumenaz baliatuz, Eusko Jaurlaritzako Toki Jaurbidearen Zuzendaritzak Ordenantza horretan aurkitu dituen hainbat irregulartasunen gaineko informazioa eskatu du.

Agindu horrek araudiaren 7.artikuluak aipatzen du, Batzarrek, deliberazioek eta erabakiek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da Lehendakaria eta Idazkaria edo haiek ordezkatzeko pertsonak eta, gutxienez, kontseiluko kideen erdia egotea.

Aazaroaren 26ko Herri Administrazioen eta Jardunbide Administratibo Arruntaren 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako moduan, kideen erdia gutxienez, egon beharko dute balidoki eratu ahal izateko.

Toki Araubideko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bateginaren 56. artikulua esaten duenez, Ordenantzak onartzeko bete behar diren xedapen berak bete behar dira horiek aldatzeko.

Hortaz, honako prozedura jarraitu behar da:

- d) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- e) Jendurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxienezko epean.
- f) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko onartutzat joko da.



Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Toki Jaurbidearen Zuzendaritzak egindako aholkuei segituz, eta 2009ko martxoaren 12ko Zerbitzu Delegazioaren aldeko irizpenekin eta 2009ko martxoaren 18ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia aldatu:

Araudi horretako 1.ataleko 7.artikuluak honela idatzita geratuko da: “Batzarrek, deliberazioek eta erabakiek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da Lehendakaria eta Idazkaria edo haiek ordezkatzan dituzten pertsonak eta, gutxienez, kontseiluko kideen erdia egotea.

2.- Arautegi hori jendaurrera jartzea 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jauna

Aldaketaren arrazoia eta egingo den izapidea azaltzen ditu.

Leunda jauna

Proposatutako aldaketarekin ados dago, baina bere garaian adierazi zuen moduan, ez dago ados Kontseiluaren eraketarekin, EAE ez baitago ordezkaturik.

Iztueta andrea

EAE ordezkaturik ez dagoela-eta bere haserrea agertzen du eta ordezkaritza hori bermatu egin beharko litzatekeela adierazten du.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:



Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3,EA 2)
Kontrako botoak: 2(EB/Berdeak/Aralar)
Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

8.- Galde-eskariak

Leunda jaunak garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak emateko oinarrien zuzkidurei buruzko galdera luzatzen du.

Alkateak horren berri ematen dio. Une honetan 2007 eta 2008 urtetako diru-laguntzen deialdia zabaltzen da. Kopuru horiek agortzean , uda pasa ostean, 2009. urteari dagozkion laguntzak deituko direla usten du.

.....

Leunda jauna, Aralar alderdiko ordezkari modura, hauteskunde aurreko kanpainan Aralarreko hainbat kartel kentzearen zergatiari buruzko galdera luzatzen du.

Alkate jaunak hauteskunde-kanpainarako errespetatu egin behar diren hauteskunde-espazio batzuk daudela erantzuten dio, eta alderdi batzuk hala egiten dutela eta beste alderdi batzuk ez dutela espazio hori errespetatzen.

Asenjo jaunak gaiari dagokionez, jakinaren gainean dagoela adierazten dio. Alkateak emandako erantzunaren ildotik erantzuten dio: hauteskunde-espazio jakin batzuk daude. Udaltzaingoak kendu zituen kartelak, legea bete zedin haiek kentzeko agindua eman baitzitaion.

Leunda jaunak inori enbarazu egiten ez zien 8 kartel zirela adierazten du.

Udalak berak betetzen ez duen ordenantza betearazi behar ote den galdetzen da.

Asenjo jaunak agindu al dezake haiek kentzea?

Idazkari andreak adierazten dio Udaltzaingoaren egitekoa dela ordenantzak betearaztea.

Leunda jaunak adierazten du arauak guztiok betetzekoak direla.



Kartelak jartzeko duten gune bakarra kalea dela dio, ez EAJ eta EA alderdiek bezala; izan ere, azken horiek leku eta eraikin pribatuak kontrata ditzakete, horretarako ordainduz.

Iztueta andreak lapurra izatea leporatzen dio Asenjo jaunari zinegotzi lekua hartzeagatik, haren ustez, ez baitagokio halako lekurik.

.....

ELAk EULENen (San Jose zaharren egoitzan azpikontrataturako enpresa) duen ordezkariak adierazten du EULENeko langileak grebara atera direla egoitzako langileekiko aldea oso nabarmena dela uste dutelako.

Udalari zein neurri hartzen ari diren galdetzen dio, bere ustez Udala delako EULEN kontratatzen duena. Horrez gain, Probintzia-hitzarmenaren mahaia hautsi egin da.

Alkate jaunak erantzuten dio Udala ere gaia dela-eta kaltetua izaten ari dela, berez, eskumena Aldundiari dagokiolako. Gauzak egiten ari dira eta inplikaturako alde guztien erantzukizuna eskatzen du: erantzukizuna Aldundiari, langileei, sindikatuei, etab.

ELAko ordezkariak soldata eta beste hainbat kontutan egoitzako langileekiko aldeak nabarmenak direla adierazten du berriz ere.

Dubreuil jaunak adierazten du Aldundia dela Gipuzkoan homogeneousatu behar den egoitza-eredua zein den argitu behar duena, eta haren erantzukizuna dela. Hark jarri behar ditu gauzak bere lekuan.

Udalerrietan egoitzak dituzten Udaletako Alkateen artean bilkurak egiten ari dira.

Alkate jaunak usten du Udalak egin behar duen ekarpena Aldundiak ekonomikoki bideratu arte, egoera oso zaila dela.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko idazkariak egiaztatzen dut.

